

# **MUSICALIS NOVA LECTIO**

Klasikoa deritzan musikaren garapenari  
buruzko musika-antzerki lana

## **La Trova**

Testua: Javier Horno

Musika: Máximo Olóriz, Claude Le Jeune eta  
Anonimoa

## **GIDA DIDAKTIKOA**

Manuel Horno

## **AURKIBIDEA**

1.- AURKEZPENA

2.- GIDAREN HELBURUA

3.- IKUSKIZUNAREN MUSIKA-EDUKIAK

4.- AIPAMEN HISTORIKO LABURRA, IKUSKIZUNAREN MUSIKA-ESTILO DESBERDINAK  
DIRELA ETA IKASGELAN LANDU BEHARREKO HAINBAT ALDERDI ZEHATZEN GAINEKOA.

5.- JARDUNAK - ENTZUNALDIAK

6.- AZKEN GOGOETAK

## **1.- AURKEZPENA**

Musikaren historia DBHko diseinu kurrikularretan agertzen diren ikasgaietako bat da. Ikasleari erakustea hainbat mendetako bilakaerak eskaintzen duen aukera sorta zabala, eskura baitugu Erdi Aroko motete bat, kantata barroko bat edota sonata klasikoa aditza eta haietaz gozatzea, horixe da helburu nagusietakoa. Zale gisa nahiz aditu gisa, musikaren munduan sartzeak gozamen estetikoak ematen digu gizakioi, norberaren garapenaren osagarri bikaina.

Bestalde, edozein ikasgairen ikaskuntzak ez du zertan izan dibertigarria beti. Musikariak, beste diziplina askotan diharduenak bezala, guztietan esatera ere ausartuko nintzateke, ongi aski daki nolako eginahala, kemena eta "asperdura" ere igaro behar izan dituen bere musika-tresna menperatu ahal izateko. Baina, La Trovakoak une alaia igaroarazi nahi diegu ikasleei, eta aldi berean, aukera-sorta horren zati bat erakutsi, bistan denez, oso-osoa izanzen ez dena, baina, gure ustez, euren jakin-mina pizteko baliagarria izan daitekeena, aldezturik eurentzat "zaharren gauza" diren hainbat musika-estilo, pieza eta umoreaz lagunduriko bizipen hurbilak jarri euren eskura.

Musicalis Nova Lectio parodia moduko ikuspegi bat da, musikak Erdi Arotik egungo TBraino izan duen bilakaera erakusten duena. Parodia modukoa da, umorea egiten duelako, eta gainera parodia ere egiten duelako, diren estilo eta musika-lanak hartu eta aurkezten dituelako, umore pixka batez ziprztindurik.

## **2.- GIDAREN HELBURUA**

Ikasgelatik kanpo egiten diren jardunak oro probetxugarriagoak izaten dira aldezturik ikasgela barruan landu badira. Gida honek irakaslearendako laguntza-materiala izan nahi du, ondoren taula gainean agertuko diren gaiak lantzeko baliagarria. Horretarako, lehenbizi, Musicalis honek aurkezten dituen garaien aipamena eginen dugu, ondoren, ikuskizunean ageri diren estilo eta lan desberdinen gaineko informazioa eskaintzeko, ikasleendako jardunen proposamenekin batera. Esan beharrik ez dago, ikasle taldearen ezaugarriak irakasleak ezagutzen dituela hobekien. Horregatik gida hau irekia da, irakasle bakoitzaren proposamenen arabera osatzekoa.

### **3.- IKUSKIZUNAREN MUSIKA-EDUKIAK**

**ERDI AROA:** GREGORIANOTIK POLIFONIAREN SORRERARA.

Kantu Gregorianoa. Estilo Salmodikoa eta Melismatikoa

Organum paraleloa

Organum loretsua: *Sanctus*

Antzinako motetea: *Rosella* (XIII. mendeko *Amor Potens* motete anonimoari buruz)

Trobadore kantua *Yo que alguna vez te he visto*

#### **BERPIZKUNDEA**

Chanson frantziarra XVI. mendea *Udaberria heldu da* (Claude le Jeune)

Madrigal *Oh, Dolore*

#### **BARROKOA**

Kantu barrokoa *Txoritxo fidakorra*

#### **KLASIZISMOA**

Sonata Klasikoa *Dolua*

#### **ERROMANTIZISMOA**

Lied Erromantikoa *Der incauter müller*

#### **XX. MENDEA**

*La tierra encantada (Lur sorgindua)* sailaren atal baten bikoizketa

#### **4.- AIPAMEN HISTORIKO LABURRA, IKUSKIZUNAREN MUSIKA-ESTILO DESBERDINAK DIRELA ETA IKASGELAN LANDU BEHARREKO HAINBAT ALDERDI ZEHATZEN GAINEKOA.**

**ERDI AROA:** GREGORIANOTIK POLIFONIAREN SORRERARA.

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

MONODIA: hots eta isilune segida batek eratzen duen ildo melodikoa, hau da, behin ere ez da aditzen bi hots ezberdin batera. Ahots bakarreko musika deritzaiona da hau. Garrantzitsua da ikasleekin batera bereiztea *ahots* hitzaren erabilera ildo melodikoa adierazteko, aldi berean ahots anitzek kantatzen ahal dutena (pertsonek ahotsak). Guztiei kantu bera kantarazten badiegu, monodia bat izanen da (guztiek gauza bera kantatzen badute), ahots bakarrean, 20 ahots-pertsonek kantatzen badute ere.

POLIFONIA: musika ahots anitzez, edo hainbat ildo melodiko. Alegia, hots anitz aditzen dira aldi berean.

Kantu gregorianoa liturgia katolikoaren kantua da. Gregorio Magno Aita Santuarengandik (ca. 540-604) hartu zuen izena, musika estilo hau asmatu ez baina, bilketa lana egin eta Eliza Katolikoaren "kantu ofiziala" ezarri baitzuen hark. Baina, honen sorreraren bidezidor bihurrietan barna sartzea baino, zenbait alderdi nabarmentzea interesa zaigu, ondorengo garaietan izan zuen garrantziagatik.

- Gregorianoa, Kantu gregorianoa edo "Canto Llano", AHOZKO musika da, A CAPELLA (instrumenturik gabe), beti LATINEZ (elizaren hizkuntza ofiziala, batasuna ematen ziona liturgiako osagai garrantzitsu baten bitartez) eta MONODIKOA (ahots bakarrean. Ahotsa esanda, ildo melodiko bat aipatzen ari gara. Melodia hori, bakarra, hainbat lagunek kantatzen ahal zuten). Garrantzitsua da lau kontzeptu hauek ikasleekin lantzea.
- Gregorianoa gaurdaino mantendu da liturgia katolikoan. Katolizismoaren estilo ofizial bakarra ez bada ere, erabiltzen da egun ere. Beraz, mintzagai dugun estilo hau ia Elizak dituen 2.000 urteetan erabili izan da.
- Kantu gregorianoaren ildo melodiko honetatik abiatuta sortuko da, hain zuzen ere, polifonia, alegia, bi edo ahots gehiago (ildo melodikoak)aldi berean jotzen dituen musika. Barrokoan, artean ere, Gregorio Magnoren aitasantutzatik mila urte igarota ere, musikagileek kantu lauaren iturrietara jotzen segitzen zuten melodiak hartzeko, ordurako hainbat ahotsez eta tresnez jotzeko sortzen zituzten konposizio-lan berrietarako.

## Musicalis Nova Lectio

### Eskola - Kontzertuak

Garai hartan ohikoa zen musika monodikoa edertu beharrez sortu zen polifonia, bilaketa eta garapen lanaren ondorioz. Sorrera hartaz dakiguna berreraikuntza lan baten ondorioz dakigu, garai hartatik iritsi zaizkigun adibide idatzi eskasetatik abiatuta. Dirudienez, hasierako saioak melodia bat eta bera, paraleloki, tarte baxuago batetik joaz egin zituzten. Alegia, Zorionak Zuri melodia ospetsua hartu eta, aldi berean Sol notatik eta Do notatik hasiko bagenu bezala. Ondoren, linea melodiko gorena edertzea bilatzen da, behekotik bereiztearren. Organum loretsuak direlakoak izanen ziren. Loretsuak, apaingarriez edertzen zirelako, notak gora eta behera segidan ezarririk.

Prozesu honek, hiru eta lau ahotsetako konposizioetara iritsi zena, aurrera pauso garrantzitsua eman zuen organum horiek osatzen zituzten orduko melodiei beste letra batzuk eranstea erabaki zutenean. Mot (hitza) frantsesezko hitzetik heldu da Motete hitza: hainbat ahotsez egindako konposizioa, sorrera antzinako melodia gregorianoan duena, ahots horietako bati herri-hizkuntzan kantatutako testua erantsi zaiola, batzuetan gai profanoak erabilita. Bitxia da, izan ere, pieza batean aurkitzea, esaterako, Kyrie baten oinarri gregorianoaren gainean, Andra Mariari latinez kantatzen dion ahots bat, eta horren gainetik beste ahots bat, frantsesez amodiozko gauza humanoak kantatzen dituen. La Trovok proposatzen dituen adibideak (organum paraleloa, *Sanctus* eta *Rosella* motetea) asmatutakoak badira ere, egiazko lanetan oinarritutakoak dira.

Trobadoreak (haiengandik hartu du izena La Trova konpainiak) edo, euskaraz esan izan zaien moduan, koblakariak, Erdi Aroko kantari eta poetak ziren, beren ikuskizunekin jaunen etxeetan barna ibiltzen zirenak, gehienetan naturazko eta amodiozko gauzak erabiltzen zituztela kantagai (baita ere gai politikoak, moralak eta erlijiosoak). Frantziako hegoaldean "trobador" eta iparraldean "trobero" hitzez zera adierazten da, "*bilatzen edo asmatzen duena*". Probentza frantziarrean, Frantziako hegoaldean, alegia, ugari izan ziren. Eurek konposatzen zituzten euren kantuak, egungo frantses hizkuntza denaren aurrekari izan ziren *langue d'oc* eta *langue d'oïl* izeneko hizkuntzetan. Ahots bakarrean kantatzen zituzten euren konposizioak, batzuetan tresnaren baten laguntzaz.

Entretenigarriak ziren, eta artea zabaltzen zuten. 5.000ren bat poema eta 1.500etik gora melodia gorde dira. Genero oso estimatua izaten zen pastorela edo pastourelle delakoa, jaun batek artzain neska gazte batengana zuen amodioa kantatzen zuena. *Yo que alguna vez te he visto* lana trobadoreen pastorela baten parodia da, eta Erdi Aroko jaun batek neska kortejatzeko zuen modua azaltzen du.

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### BERPIZKUNDEA

XV eta XVI mendeak hartzen ditu. Polifoniak aurrera segitu zuen era konplexuetarako bidean eremu erlijiosoan. Garai honetako bi molde oso nabarmenak hartuko ditugu mintzagai: *chanson* frantziarra eta *madrigal* italiarra.

Berpizkundeko *chanson* frantziarra Erdi Arotik haldu zen. Ahots bakarreko moldea da, egitura errazekoa, estrofa-estribillo txandakatuta. Claude le Jeune (1528-1600) musikagilea frantziarra da, eta La Trovák kantu bat hartu zuen harengandik, *Revecy venir du printans*, genero honen erakusgarri. Amodiozko eta naturazko gaiak erabiltzea (trobadoreengandik helduki) eta bere egitura erraza, estrofa-estribillo txandakatuz adimenean sentsazio biribila ematen duen segida musikalean, umoreari agertzeko bidea ematen dioten oinarriak dira, testua funtsean era fidelean itzulita. Garrantzitsua da hemen bi kontzeptu hauek bereiztea:

### OINARRIZKO KONTZEPTUAK

**ESTROFA:** errepikatzen den musika tartea, batzuetan aldaketa txikiez, testua aldiro aldatzen dela.

**ESTRIBILLOA:** musika bera eta testu bera errepikatzen dituen tartea.

Madrigala izan zen italiar musika profanoko generorik garrantzitsuena, garai gorena XVI. mendean ezagutu zuena. Haren bidez Italia europar musikaren erdigune izatera iritsi zen, historian lehen aldiz. Madrigalaren ezaugarri nagusia testu-musikaren arteko batasun trinkoa da: testuan diren ideien esanahia, baita hitzena euren ere, musikan berean islatzen saiatzen da. Esate baterako, gainbeheraren ideia nahi badugu musikan azaldu, goitik beherako eskala erabiliko dugu. Edota "oinazea" adierazi nahi badugu, belarrian ezegonkor joko duen akordea erabiliko dugu. *Madrigalismoak* direlakoak ditugu hauek. *Oh dolore* izenekoa La Trovák XVI. mendekoan erara konposatutako madrigala da, eta aurkezpenean *madrigalismoak* zer diren azaltzen da. Madrigalaren egile ospetsu bat izan zen, Claudio Monteverdi, hain zuzen ere, generoari eta musikaren beste hainbat alderdiri garapena eman eta historian beste izen batez ezagutzen dugun garaiari, barrokoari alegia, sorrera eman ziona.

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### BARROKOA

Berpizkunde garaian halako konplexutasuna iritsi zuen polifoniak, melodia soilera itzultzeko gogoia piztu zen musikarien artean. Ordurako entzumena ohitua zegoen aldi berean hainbat ahots entzuten, eta zera asmatu zuten, alegia, melodiari lagunduko zion musika oinarri bat, harmonia egiten zuena, eta hari baxu segida esaten zitzaion. Honek operari eman zion bide genero gisa, bai eta beste hainbat musika molde zipritindu zituen beste estilo bati ere, Cantatari, alegia, edo, gaztelaniaz, Cantadari. *Pajarillo confiado* (txoritxo fidakorra) kantata barrokoaren parodia da, ikasleari erakutsi nahi diona Errezitatua eta Area (Aria italieraz) egitura ohikoa. Garrantzitsua da bi kontzeptu hauek bereiztea.

### OINARRIZKO KONTZEPTUAK

**ERREZITATUA** (edo Errezitatiboa): hizketaren hurbileko estiloa, testuaren ulermen osoa bilatzen duena. Ahotsak errezitatu egiten du jolas melodiko txikiak eginez instrumentuek egiten duten akorde-oinarri estatiko (baxu segida) baten gainean.

**AREA** (edo Aria, italieraz): estiloa dagoeneko erabat musikala da. Melodiak askatasun handiagoz jolasten du, maiz bilatzen duelarik, edertasuna ez ezik, ahotsezko birtuosismoa ere, "koloraturak" erabiliz, alegia, gorakako eta beherakako eskala arinak erabiliz, melodiaren edergarri. Une honetan gelditzen da ekintza, eta errezitatuaren kontatutako ekintzak eragin dituen sentimenduak adierazi ohi ditu testuak. Instrumentuen musikaren laguntza hagitzez oparagoa da, eta jolas melodikoetan parte hartzen dute.

**BAXU SEGIDA**: barrokoa deritzan eta 150 urtez egin den musikaren ezaugarri behinena da berau. XVI. mendearen bukaeran iritsi zen konplexutasun polifonikoaren ondoren ahotsezko melodiaren soiltasunera itzultzeko joera zabaldu zen, klasiko greziarren estilora itzultzen ari zirelakoan. Ildo melodiko hori ez zitekeen bakarrik egon harrezkero, eta tarte melodiko bakoitzaren oinarri harmonikoa markatzen zuen akonpainamenduaren gainean ezarri zen. Hain ohikoa izatera iritsi baitzen hau, musika lan guztiak, ahotsezkoak nahiz instrumentuzkoak, baxu segidarekikoak zirela suposatzen zen. Izan ere, maiz, idatzi ere ez zen egiten, edo akordioak bakarrik adierazten ziren zenbait oharretan, batere garapenik gabe, eta musikariak eurak izaten ziren baxu segida hura garatzen zutenak.



## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### KLASIZISMOA

XVIII. mendea argien mendea da, arrazoiarena. Arrazionaltasun hori musikaren moldeetan ere islatzen da. Sonataren eredu ezartzen da, barrokofik eratzen ari zena, musikaren orekaren eredu formal gisa. Garai honetako bi musikagile nabarmenetakoek, Haydnek eta Mozartek, sonatak konposatu zituzten. Konposizio egitura honetan oinarritu zen La Trovák eskainiko duen *El duelo* izeneko sonata, XVIII. mendeko molde horren arabera egungo musikagile batek sortua dena. Sonataren oinarria bi melodia edo temaren arteko kontrastea da. Azterketa egiterakoan, bi tema horiei A eta B esaten zaie, eta izaeraz kontrajariak izaten dira (bata biziagoa, bestea lasaiagoa), eta tonalitatean ere bai. Tonalitatea kontzeptu konplexuagoa da bigarren hezkuntzako ikasle bati azaltzeko. Belarrirako adibide praktikoen bitartez, ordea, egin daiteke. Ikasgelan pianoa badugu, edo transportadorea duen teklatu elektronikoa, melodia bera tonalitate desberdinetan jo daiteke adierazteko tonalitatea "soinu-eremua" dela, bertan musika garatzen dela. Edonola ere, bai lan daiteke ikasleekin sonataren oinarritzko egitura.

### OINARRIZKO KONTZEPTUAK

SONATA: sonata hitzak adierazten du jotzeko musika dela hori. Guk deskribatu dugun moduko izaera klasikoa hartu baino hainbat mende lehenago ere erabiltzen zen. Horregatik nahasmena sor dezakeen hitza da. Saia gaitzen, bada, sonata hitzaren adiera desberdinak bereizten:

- barrokoko pieza instrumentala, instrumentu bat edo gehiagorentzat egina.
- sonata era klasikoa, aipatutako egitura duena.
- era hau aplikatu dakioke instrumentu baterako lan bati. Kasu horretan pianorako sonata deitzen da, edo biolinerako sonata.
- sonata egitura aplikatzen zitzaion orkestrarako edota solistarekiko orkestrarako hiru edo lau mugimenduetako lehenbizikoari ere. Kasu honetan lan osoari ez zitzaion sonata izena ematen, Kontzertua baizik (barrokoan), edo Sinfonia (klasizismoan), instrumentu bakarlariik gabeko orkestrarako bazen; Kontzertua "pianorako", esaterako, deitzen zitzaion, instrumentu bakarlaria bazuen (bai barrokoan bai klasizismoan eta erromantizismoan ere).

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### SONATA MOLDEAREN EGITURA

Bi temak (A eta B) AZALTZEA

Bi melodien GARAPENA, alegia, aldaerak, aldaketak...

A eta B temak BERRAZALTZEA

*El duelo* sonata pianoko *Kadentzia* batez amaitzen da. Hau oso arrunta da sonata modua aplikatzen zitzaionean instrumentu bat bakarlari gisa aritzen zeneko musika-lan bati (*Pianorako/biolinerako/klarinetarako Kontzertuak deritzenak...*) Kasu hauetan, lanaren amaieran, entzulearen belarriak amaitzera doala gaztigatzen dionean, instrumentu bakarlariak agerraldi bat egiten du, berak bakarrik, orkestraren laguntzarik gabe, agertu izan diren ideia musikalki birpasatzeko, birtuosismo erakustaldia egiteko eta instrumentuak bakarka duen sonoritatea erakusteko baliatzen dena.

### ERROMANTIZISMOA

Erromantizismoak XIX. mendea hartzen du, aldi hartako ezaugarri nabarmenetakoa sentimenduen gorespina egitea zelarik, eta era berezian amodioaren gorespina, musika eta poesiararen bidez. Horrenbestez, La Trovák, *Lied* izeneko generoa aukeratu du, aldi haren erakusgarri egokia delakoan. *Lied* delakoa genero alemaniar petoa eta erromantiko petoa da. Genero honen modu ohikoena piano eta ahotserakoa zen, erromantizismoaren ondoren Mahler bezalako hainbat musikagilek ahotserako eta orkestrarako hainbat *lieder* idatzi bazuten ere. Zera esan liteke, bi instrumentu horiek zirela, musikagileen irudiko, sentimenduak azaltzeko egokienak. Ez da kantu bat ahotserako pianoaz lagundurik. *Liedean* bi instrumentuek partekatzen dute protagonismoa eta biak dira adierazle. Bistan denez, ahotsak hitzaren abantaila du adierazpide gisa, baina hortxe dago, hain zuzen ere, musikagileen jenialtasuna, lortzen baitzuten pianoa, musika zela bide, sentimenduak adierazteko gauza izatea. Schubert da, beharbada, genero honetako musikagilerik nabarmenena. Hark konposatutako *lieder*-zikloetatik aipagarriena *Errotako neska ederra* da, poema sorta bat, alegia, neskarekin maitemindutako gazte baten kontuak kontatzen dituen. Gazte horrek, azkenik, desio duen amodioa lortu ez eta, bere buruaz beste egiten du. Ziklo osoa larreek, errotak eta erreka txikiak osatzen duten inguru bukolikoan gertatzen da, eta hasieratik gaztearen sentimenduak pianoarekiko solasaldian sartzen dira, eta azken bidaian ere, hark lagunduko dio. La Trovaren *Der incauter müller*, bistan denez, *Errotako neska ederraren* parodia da. Umore ukituen bidez genero honen ezaugarriak azaltzen ditu eta, beraz, interesgarria litzateke alde zurretik ikasgelan Schuberten zikloko zenbait *lieder* entzutea.

## **Musicalis Nova Lectio**

*Eskola - Kontzertuak*

### **XX. Mendea**

XX. mendean, gainerako arteek bezala, musikak ere garapena bizi izan zuen, oinarri zuena adierazpide berrien mugimendu arinagoak bilatzea. Gizartean garrantzi berezia hartzen du, gainera, klasikotik bereiztearren modernoa deitzen zaion musika moldeak,. Gure asmoa zera da, gure eguneroko bizimoduan musikak duen garrantzia nabarmentzea. Ikasleei ikusarazi nahi diegu musikak nola laguntzen digun zineman, telebistan, irratian, publizitatean, festetan, herri adierazpenetan... adibide erraz eta umoretsu batez: marrazki bizidunetako sail baterako bikoizketa.

## **5.- JARDUNAK - ENTZUNALDIAK**

### **ERDI AROA**

- Melodia bat taldean kantatzea. Pertsona bati bakarka kantatzeko eskatzea. Adibide hau dela medio azaltzea zer den kantu bat ahots bakarrekoa, nahiz lagun batek baino gehiagok kantatu.
- melodia ezagun bat, erraza, kantatzea. Ondoren kantatzea 4garren goikoa edo 5garren behekoa den tarte baten paraleloan.
- hiru edo lauko taldeetan, ezagutzen duten kantu erraz bat presta dezaten. Hortik abiatuta, batek bakarlari lanak eginen ditu; gainerakoek kantuaren lehenbiziko nota-silaba kantatzen dute eta gelditu egiten dira berau luzatuz. Bakarlariak inprobisatu egiten du pedal horren gainean. Jardun hau taldeka lantzea komeni da, irakaslearen gainbegiratuaz. Berak ikusiko du zenbat ikasle dituen eta nola antola dezakeen erarik egokienean.
- testudun kantu ezagun batetik abiatuta, testu hori aldatzea beste hizkuntza batean dagoen testu baten truke. Kantuaren tarte batekin egin daiteke, gainerakoa lehengoan utzirik.

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### ENTZUNALDIAK

Gida honetako ataletako edozeinetan, gomendatzen diren jardunetako bat ikasgelan lan klasikoan tartekatu entzutea da. Horretarako, horien hautaketa bat eskaintzen da, helburu horretarako baliagarriak izan daitezkeen musika-lan eta bertsioren zerrenda luzea batera agortzen ez duena.

- Kantu gregorianoa. Salgai diren CD anitzetako edozein. Esate baterako, Santo Domingo de Silos Beneditarren Monasterioko Monjeen bertsiak.- EMI Classics
- NAXOS etxeak ere gregorianoaren grabazio onak ditu.
- Musika Aro Gotikoan.- David Munrow.- Archiv Produktion. 2 CD

Gomendatzen ditugunak:

- o Viderunt Omnes (organum 2 ahotsetan eta organum 4 ahotsetan)
- o Amor potest (Rosella de Musicalis oinarritua dagoen Motetea)
- o S'on me regarde

### BERPIZKUNDEA

- Estrofa eta estribillo kontzeptuak lantzea kantu ezagunetatik abiatuta. Ongi etor litezke eurek aditzen dituzten musika modernoan azken arrakastatsuak, gehienak eskema hori baitute oinarri.
- Adieraztea, ahotsez bakarrik, ahots eta instrumentuez eta instrumentuez bakarrik zenbait hitz-ideia, esaterako alaitasuna, tristura, oinazea, kaos, arintasuna, moteltasuna...

### ENTZUNALDIAK

- *Le chant des Oyseaux* (Clement Janequin).- Ensemble Clement Janequin.- Harmonia Mundi
- *Adieu, mes amours*.- Chansons.- (Josquin Desprez).- Ensemble Clement Janequin.- Harmonia Mundi-
- *Le Cris de Paris*.- (C. Janequin y Claudin de Sermizy).- Ensemble Clement Janequin.- Harmonia Mundi-
- *Une Fête chez Rabelais*.- Canciones y piezas instrumentales de la primera mitad del s. XVI.- Harmonia Mundi
- Monteverdiren madrigalak. Oso interesgarriak Rinaldo Alessandriniaren bertsiak.- Opus 111

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### BARROKOA

- Errezitatibo bat konposatu eta segida batez lagundu. Hasiera batean oso zaila iduri lezake jardun honek, baina aurrez ikasleei entzunarazten badizkiegu errezitatiboak, irits gaitzek horretara. Testu labur batetik abiatu, idatzitako poesia batetik edo ikasleek eurek idatzitako testu batetik; errezitatu eskalako nota tonikoaren eta nagusiaren gainetik. Segida akordeak egiten dituzten txirulez egin daiteke.
- Errazagoa izan daiteke, errezitatiboen zenbait adibide adituta, testu zehatz bat proposatzea, edo bi ikasleen arteko elkarrizketa inprobisatua, estilo errezitatuan egitea. Ikasleen imitaziorako gaitasun hutsaz lortuko da estilo horretarako hurbilpena.

### ENTZUNALDIAK

- “Mas no puede ser” Villancicos y Cantadas. Barroko espainola. Vol 1. Al Ayre español. Eduardo López Banzok zuzendua. Deutsche Harmonia Mundi.
- *Koloratura* kontzeptua oso ongi ikus daiteke Haendelen edozein operatan. Irakaslearen alde aurreko entzunaldiak erraztuko dio *koloratura* horiek sartuta dauden ariak. Adibide gisa Julio Cesar opera ekarriko dugu, Cesarren aria *Empio, dirò*.- Kölneko Kontzertua, René Jacobsek zuzendua.- Harmonia Mundi.

### KLASIZISMOA

#### ENTZUNALDIAK – JARDUNAK

- W.A. Mozart: 40gn Sinfonia. Oso sinfonia ezaguna denez, erraza izanen da sonata eraren egitura lehen mugimenduan. A eta B temak, euren garapena eta euren ber-azalpena. Hori lantzeko era erraza zera da, A tema lau-bost aldiz segidan entzun, eta gero mugimendu osoa entzutea, eta ikasleei eskatzea eskua altxatzeko tema hori edo antzekorik gogora ekartzen dien edozer entzuten dutelarik.
- Mozarten pianorako kontzertuen kadentziak. Adb, 17garrena. Kadentziak egiten ziren kontzertu baten lehenbiziko mugimendua amaitzean. Erakusgarri gisa. W. A. Mozart. *Concierto para piano y orquesta nº 17 en Sol mayor, K.453*.- Filarmónica de Berlín.- Daniel Barenboim.- TELDEC. Bistan denez, beste bertsio anitz badira salgai.

## Musicalis Nova Lectio

Eskola - Kontzertuak

### ERROMANTIZISMOA

#### JARDUNAK – ENTZUNALDIA

- Schubert: Die schöne Mullerin.- Diatrich Fischer Dieskau (Baritonoa), Gerald More (Pianoa).- Deutsche Grammophon. Schuberten *Errotako neska ederra* lieder zikloa. Historia kontatzea: gazte bat paseoan dabil alaiki larreetan barna, lana eta amodioaren bila. Errekasto baten ondotik dabil, eta hari kontatzen dizkio bere esperantza eta ilusioak. Errekasto hori, sinbolikoki, gaztearen lagun bihurtuko da. Errotako neska ederra ezagutu eta, harekin lanean geratzea erabaki du. Bistan denez, hartaz maitemindu da eta neskak, hasieran amore eman ondoren, azkenik beste mutil batekin sartzen dio ziria. Gazteak bere buruaz beste egiten du, bere burua errekara botata. Istorioa (aski da zikloa osatzen duten poemak irakurtzea) topiko erromantikoez betea dago: amodioa, adiskidetasuna, naturaren gorespenna... kontua da horiei buruz hitz egitea ikasleei, eta liederretako batzuk entzutea, bertan azaltzen baitira, musikaren bidez, alderdi horietako zenbait.

### XX. MENDEA

#### JARDUNAK – ENTZUNALDIAK

- Gogoeta egitea gure eguneroko bizimoduan izaten diren gertakizunetan musikak zein unetan ematen digun laguntza.
- Gogo-ariketa egitea: irudikatu une horiek muskarik gabe. Nola irudikatzen dituzte? (esate baterako, pelikula bat). Erredaktatzea eta komentatzea.
- Egungo pelikulen soinu-bandak entzutea. Ikusi badituzte, interesgarria izan daiteke entzutea irudirik ikusi gabe. Gogoratzen al duzu entzundako zati horiek pelikularen zein tarteri dagozkion?

## **6.- AZKEN GOGOETAK**

Proposatutako zenbait jardun, eta entzunaldiak oro har, material osagarria izan daitezke, Musicalis kontzertura joan ondoren erabiltzeko egokiak.

Nire ustez, musikaren munduan hezitzaileak garen aldetik, gure buruari jartzen ahal diogun helbururik garrantzitsuena hau da, alegia, ikasleei begiak, belarriak eta gogoak zabaltzea musikaren mundu itzelari. Puskatu egin behar dugu Musika Klasikoa, horrela, maiuskulez jarria, barne hartzen duen kontzeptua biribil hertsia, zeina hartu behar baitugu bere horretan, guztia bat eta bera baillitza. Gustatu egiten bazaigu, hartu, edo bestela, guztia baztertera utzi. Hain urrun antzematen duten mundu horretan estilo oso desberdinak daudela erakutsi behar diegu, eta batzuk gustukoak izaten ahal ditugula, eta beste batzuk ez, eta ez dela horregatik deus gertatzen. Horregatik La Trovaren Musicalis Nova Lectio hauek handik eta hemendik hartutako zenbait zertzelada aurkeztzen saiatzen dira, umore printza batez, beti ere gauzak digeritzeko lagungarria baita. Honen bitartez irakasleak ildo honetan egiten duen lanari laguntzen badiogu, gogoak aski beterik egonen gara.